

HERRIAREN KOKALEKUA

Pirinio mendien bi aldeetako lurrak hartzen ditu Euskal Herriak, eta zazpi probintzia ditu. Pirinioaren alde batera, hiru probintzia daude, Frantziako Estatuan, eta beste aldera, lau, Espainiako Estatuan.



ZER DA PLANOA?

Hiria edo herria **tamaina txikian irudikatze marrazkia** da.

Hiri bat ez dugunean ezagutzen, tokiak aurkitzeko balio digu.

Bertan auzoak, plazak, parkeak, herriko zerbitzuak... aurki ditzakegu.



ZER DA AUZOA?

Hiri edo herri bat osatzen duten zatiak dira.



ALDE ZAHARRA:

Kale estuak izaten dira.

Zenbait kale oinezkoentzat izaten dira.

Denda txiki eta ugari izaten dira.



INDUSTRIA-GUNEA:

Hirigunetik kanpo egon ohi dira.
Lantegi asko egoten dira.



LANGILE-AUZOA:

Espazio txikian etxe handi asko eta jende asko bizi da.

Industria-gunetik hurbil egoten dira.



NEKAZARI-AUZOA:

Baserriz osatutakoa da.

Nekazari giroko herri txikietan egon ohi dira.



BIZITEGI-AUZOA:

Lorategi publiko nahiz pribatu ugari izaten dituzte.

Oso lasaiak dira.

